

Kalitate politika

Unibasqek, euskal unibertsitate-sistemaren kalitate-agentzia den heinean, bere jardueren plangintza eta garapena nazioartean onartuta eta estandarizatuta dauden printzipioetan oinarritu behar du, eta printzipio horiek betetzen direla aldizka egiaztatuko du kanpo-ebaluazioaren bitartez.

Kalitate-politika baten diseinua eta garapena funtsezkoa da Unibasqentzat, eta bertako kide guztien eguneroko portaera modu bat dakar. Ildo horretan, prozesuen diseinua, emaitzen eta erabiltzaileen, hala indibidualen nola erakundeen, gogobetetasunaren ebaluazioa, lan-baldintzen zaintzarekin eta langileen prestakuntzarekin batera, berezko eta funtsezko alderdiak dira Agentziak arrakasta lortzeko.

Unibasqek kalitaterako hartzen duen konpromiso hori honela zehazten da:

- Agentzia eta haren lana arautzen dituen araudia errespetatu eta betez.
- Langileen eta ebaluatzaileen prestakuntza, bere ebaluazio jardueretan parte hartzen duten guztiena, zerbitzu eraginkorra eta kalitate handikoa eskainiz.
- Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan kalitatea bermatzeko Irizpideak eta Jarraibideak erabiliz, ebaluazio-programak definitzeko eta garatzeko erreferentzia gisa.
- Unibasqen etika-kodeak ezartzen dituen printzipioak betez.
- Kalitatea kudeatzeko sistema bat izanik, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Kudeaketa ereduan oinarritzen dena, eta Agentziaren funtsezko prozesu guztiak barne hartzen dituena.
- Unibertsitate-ebaluaziorako beste agentzia batzuekin hitzarmenak eginez, garatzen diren lanak hobetzen lagunduko duten jardunbide egokiak eta esperientziak elkartrukatzeko.
- Erabiltzaileei gardentasuna eskainiz eta gizarteari kontuak emateko politika, Agentziaren jarduerari eta haren lanaren emaitzei buruzko informazio osoa hedatuko duena.
- Agentziaren aldizkako ebaluazioa eginez, Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan kalitatea bermatzeko Irizpideei eta Jarraibideei lotuta hartutako konpromisoaren eremuan.

Gobernu Kontseiluak Unibasqeko Zuzendaritzari eskatzen dio konpromiso horiek betetzen direla berma dezala, eta Zuzendaritzak behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta antolaketarakoak hornituko ditu.

Konpromiso horrek Agentziako langileak eta haren gobernu-organoetan nahiz organo teknikoetan laguntzen duten pertsona guztiak barne hartzen ditu.

Gobernu Kontseiluak onartuta 2018ko uztailaren 3an.